

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

FUNTZIO PUBLIKOAREN SAILA

Funtzio Publikoaren zinegotzigoaren ebazpena, lanpostu hutsak betetzeko lekualdatze-lehiaketako akatsen zuzenketa onartzen duena

2025eko uztailaren 23ko 83 zenbakiko 2025/2228 iragarkia, ALHAOn Funtzio Publikoko zinegotzigoaren 2025eko uztailaren 17ko ebazpena argitaratu da. Ebazpen horren bidez, deialdia, lanpostu hutsak betetzeko lekualdatze-lehiaketaren oinarriak eta eranskinak onartu ziren, eta akats materialak antzeman dira oinarri orokorretan eta II. eranskinean (Jokabide-elkarritzeta egituren informazioa eta ezaugarriak). Akats horiek hautematen dira arau juridikoen interpretaziora jo beharrik gabe, eta ez dute eraginik ebazpenaren iraupenean, ezta edukian ere.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikulua honako hau dio: “administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ahal izango dituzte, ofizioz edo interesdunek eskatuta, beren egintzetako errakuntza materialak, egitezkoak edo aritmetikoak”. Beraz, zuzendu egin behar dira.

Ebazten dut

Lehenengoa. Vitoria-Gasteizko Udalean hutsik dauden lanpostuak behin betiko betetzeko lekualdatze-lehiaketaren deialdiaren oinarrietako euskararen ezagutza baloratzeko egindako akatsaren zuzenketa onartzea (7.2.3 atala).

Honela dio:

LANPOSTUAREN HE	EGIAZTATUTAKO HE	GEHIENAKO PUNTUAZIOAREN GAIKOA %	MEREZIMENDU ESPEZIFIKOAK DITUZTEN LANPOSTUETAKO PUNTUAK	MEREZIMENDU ESPEZIFIKORIK GABEKO LANPOSTUETAKO PUNTUAK
			(35 puntu)	(20 puntu)
2	2	8	2,8 puntu	1 puntu

Esan behar du:

LANPOSTUAREN HE	EGIAZTATUTAKO HE	GEHIENAKO PUNTUAZIOAREN GAIKOA %	MEREZIMENDU ESPEZIFIKOAK DITUZTEN LANPOSTUETAKO PUNTUAK	MEREZIMENDU ESPEZIFIKORIK GABEKO LANPOSTUETAKO PUNTUAK
			(35 puntu)	(20 puntu)
2	2	8	2,8 puntu	1,60 puntu

Bigarrena. Apartatu honen oinarrietako informazioaren akatsaren zuzenketa onartzea: 7.2.2 Bigarren fasea. Berariazko merezimenduak apartatuko D) azpiatalean: gaitasun-probak eta gaitasun kognitiboaren probak.

Honela dio: Beste pertsona batzuen lanaren gaineko zuzendaritza edo erantzukizuna eskatzen duten lanpostuetarako (lanpostuen katalogoan zuzendari-funtzio duen taldean edo bitarteko buru funtzioa duen taldean dauden lanpostuak).

Honako hau esan behar du: beste pertsona batzuen lanaren gaineko zuzendaritza edo erantzukizuna eskatzen duten lanpostuetarako (lanpostuen katalogoan zuzendari-funtzio duen taldean edo bitarteko buru funtzioa duen taldean dauden lanpostuak edo administrazio- eta kudeaketa-erantzukizunaren funtzioaren taldean dauden lanpostuak).

Hirugarrena. Jokabide-elkarriketa egituratuaren informazioa eta ezaugarriak izeneko II. eranskineko baloratu beharreko eskumenak apartatuko informazioan dagoen akatsaren zuzenketa onartzea. Zuzenketa horren bitartez administrazio- eta kudeaketa-erantzukizunaren funtzioaren taldeko eskumenak gehitu dira, II. eranskinari honako hau erantsita:

Administrazio eta kudeaketa-erantzukizuneko funtzioa duen taldeko lanpostuetarako:

1. Lanaren xede den gaiari buruzko ezagutzak: lanpostuarekin lotutako ezagutza tekniko eta administratibo eguneratuak izatea.

2. Erakundeari buruzko ezagutzak: erakundeko gainerako kideen programei, eginkizunei eta zereginiei buruzko ezagutzak izatea, bai eta zerbitzuak udal-arreta osoan duen misioari buruzkoak ere.

3. Kudeaketa eta antolaketa: eskura dauden baliabide teknikoen eta giza baliabideen kudeaketa egokia egiteko gaitasuna izatea, eta baliabideak helburuen arabera antolatzen jakitea.

4. Erabakiak hartzea: arazoak konpontzeko edo sortzen diren egoerei erantzuteko gaitasuna izatea, erabakiak arin eta azkar hartuz.

5. Taldean lan egin: lana egiteko gaitasuna izatea, hirugarrenek lanaren garapenean parte hartzea kontuan hartuta, eta norberaren eta besteen ekarpenak behar bezala kokatzen jakitea.

6. Eskuordetzea: egin ditzaketen beste zeregin batzuen aurrean konfiantza izaten jakitea.

7. Erantzukizunak hartzea: agindutako lanen erantzukizuna bere gain hartzen jakitea, eta lan horiek osatzea, jarduera-eremuaren mugaraino.

8. Komunikazio-trebetasunak: besteei egoera bakoitzean ezartzen diren jarraibideak, irizpideak eta aginduak jakinarazten jakitea. Transmittitzen jakitea.

9. Gizarte-trebetasunak: besteei entzuten jakitea, arrazoia izan ala ez. Bestearen "larruan" mintzatzeko gaitasuna izatea. Irigarria eta sentikorra izatea, eta argi eta errespetuz komunikatzea jarduketak inspiratzen dituzten irizpideak eta printzipioak.

10. Iraunkortasuna eta malgutasuna: irizpidea izatea eta argudiatuz mantentzen jakitea. Hainbat aukera aztertu, egoera baten aukerak edo alternatibak aztertuz.

11. Motibatze gaitasuna: besteek proiektu edo zeregin batekiko duten interesa pizten eta mantentzen jakitea. Ondo egindako lanaren balioa eta barne hartzen duen zerbitzuaren ideia/dimentsioa transmititzea.

12. Frustrazioarekiko erresistentzia handia: egindako esfortzu pertsonalaren eta azken emaitzaren arteko distantzia emozional egokia mantentzea, azken emaitza esfortzu edo itxaropenekin bat ez datorrenean.

13. Jarrera positiboa: egoera kaltegarriari dramatizatu gabe aurre egiten jakitea, egoeraren alderdi positiboak ikusten saiatuz edo bizi den zailtasuna perspektibarekin kokatuz.

14. Autokontrola: roletik erantzuteko gaitasuna izatea, ez arlo pertsonaletik. Urduritasuna kontrolatzea, emozionalki zorrotzak diren egoerei erantzun egokiak ematen saiatuz. Arrisku-egoeretan lasaitasunari eusteko gaitasuna izatea, eta neurritasun-, errespetu- eta erabakiak hartzeko gaitasun-maila egokiari eustea.

Laugarrena. Zuzenketa hau ALHAOn argitaratuta izatea agintzea.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, edo, bestela, zuzenean aurkaratu daiteke administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, bi hilabeteko epean, ebazpena ALHAOn argitaratzen denetik hasita, hala ezarrita baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112., 123. eta

124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko irailaren 19an

Funtzio Publikoaren Saileko zinegotzi ordezkaria
JUAN IGNACIO ARMENTIA FRUCTUOSO